

**EUSKADIKO ERAIKIN PUBLIKOETAN ETA INSTALAZIOETAN
ENERGIA ERAGINKORTASUNA ETA ENERGIA
BERRIZTAGARRIEN ERABILERA SUSTATZEKO PLANAREN
ALDEKO LAGUNTZA PROGRAMA, ENERGIA ZERBITZU
ENPRESEKIN (ESE) SINATUTAKO KONTRATUEN BIDEZ**

OINARRIAK

-2017. URTEA-

EUSKADIKO ERAIKIN PUBLIKOETAN ETA INSTALAZIOETAN ENERGIA ERAGINKORTASUNA ETA ENERGIA BERRIZTAGARRIEN ERABILERA SUSTATZEKO PLANAREN ALDEKO LAGUNTZA PROGRAMA, ENERGIA ZERBITZU ENPRESEKIN (ESE) SINATUTAKO KONTRATUEN BIDEZ

1. PROGRAMAREN HELBURUA, DESKRIAPENA ETA DIRU LAGUNTZEN IZAERA

1.1 Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak, Eusko Jaurlaritzaren energia politikaren helburuekin bat etorriz, behar den bultzada publikoaren bidez, honako misio hau gauzatzeko laguntzen du: energiaren kontsumoan eraginkortasuna areagotzen, energia sistema lehiakorrago, seguruago eta iraunkorrago lortzen, ingurumen eragina edo inpaktua gutxitzen, kontsumitzeko energia gutxiago erabiltzen eta kanpoko baliabideen mendekotasuna murrizten. Gainera, energia zerbitzu enpresek (aurrerantzean "ESE") alor publikoan inbertsioak dinamizatzeko lanabesak izan behar dute.

Apirilaren 5eko Europar Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006/32/CE zuzentarauak lege esparru berria ezartzen du eraginkortasunerako energiaren azken erabileran, energia berriztagarrien erabileran eta energia zerbitzuetan. Sektore publikoari dagokionez, eredugarri jokatzeko eskatzen zaio energia aurrezteko eta energia eraginkortasuna hobetzeko, energia berriztagarrien erabileran eta neurrien aplikazioan zein energia zerbitzuak kontratatzekeo sustapenean.

Geroago, 2012ko urriaren 25eko Europar Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2012/27/UE zuzentarauak, 2006/32/CE zuzentaruak indargabetzen duena, berretsi egiten du administrazio publikoaren zeregin eredugarria energia zerbitzuen kontratazioari dagokionez.

Programa honen helburu nagusia hau da: energia zerbitzu enpresen parte hartzea areagotzea, Euskal Autonomia Erkidegoko (aurrerantzean "EAE") Toki eta Autonomia Administrazioetako eraikin eta instalazioetan energia aurrezteko azterlanak eta aurrezkiak eskuratzeko, energia eraginkortasuna hobetzeko eta energia berriztagarrien erabilera bultzatzeko. Zehazki, ESErekin sinatuko diren kontratuen bitartez, Euskadiko Toki eta Autonomia Administrazioetako Eraikin Publikoetan eta Instalazioetan Energia Eraginkortasunaren eta Energia Berriztagarrien Erabilera Sustatzeko Planaren Aldeko Laguntzen Programa (aurrerantzean "Laguntza Programa") argitaratu da.

1.2 Programa honen barruan ematen diren diru laguntzak itzuli beharrik gabeko diru laguntzak dira.

1.3 Laguntza programa hau eta bere aplikazioaren ondorioz ematen diren diru laguntzak bateragarriak dira barne-merkatuarekin, Europar Batasuneko Funtzionamendu Itunaren 107. artikuluan 3. atalean xedatzen denari jarraiki, Itun horren 108. artikuluan adierazten den batzordeari jakinarazi beharretik salbuetsita egonik.

Estatuaren diru laguntza politiken oinarritzko lanabesa da Salbuespen edo Exentzio Erregelamendua, Europar Batzordeak barne-merkatuarekin bateragarriak diren ustezko diru laguntzak identifikatzen dituen neurrian, aldezturik baimena eman beharrik gabe. Era horretan, ustezko diru laguntza horien legezketasuna soil-soilik Erregelamenduaren eskakizun materialak betetzearen eta izapide edo tramite formal batzuk aurrera eramatearen menpe dago. Salbuespen edo Exentzio Erregelamendua, 2014ko uztailaren 1etik aurrera indarrean dagoenak, jakinarazpen salbuespena xedatzen du hamahiru diru laguntza kategoriarako; gainera, horietako bakoitza baimendutako erregimen kopuru handi batean azpizatitu edo banatzen da. Bereziki, Salbuespen edo Exentzio Erregelamendua eskualde edo erkidego mailako helburua duten diru laguntzak babesten ditu, enpresa txiki eta ertainei (ETE) laguntzak, ETEak finantzaketara iristeko laguntzak, ikerkuntza, garapen eta berrikuntzaren aldeko laguntzak, eta abar.

Laguntza programa honetan aurreikusten diren diru laguntzak Batzordearen 2014ko ekainaren 26ko UE 651/2014 Erregelamenduaren barruan daude, zenbait diru laguntza mota barne-merkatuarekin

bateragarriak jotzen dituen, Itunaren (DOUE 2014 L 187) 107. eta 108. artikuluen aplikazioaren ondorioz (aurrerantzean **651/2014 Erregelamendua**), jarraian aipatzen diren artikuluen arabera:

38. artikulua: "Energia eraginkortasuna sustatzeko neurrien aldeko inbertsioei diru laguntzak".

40. artikulua: "Eraginkortasun handiko baterako sorkuntza sustatzeko inbertsioei diru laguntzak".

41. artikulua: "Iturri berriztagarrietatik datozen energiak bultzatzeko inbertsioei diru laguntzak".

46. artikulua: "Energia aldetik eraginkorrak diren hiri berokuntza eta hozte sistemak bultzatzeko inbertsioei diru laguntzak".

- 1.4** Laguntza Programa honen arabera, 651/2014 Erregelamenduaren I. eranskinaren 1. eta 2. artikuluetan xedatzen denez, enpresatzat haxe hartuko da:

"Jarduera ekonomiko bat gauzatzen duen edozein entitate enpresa kontsideratuko da, bere forma juridikoa edozein izanda ere (merkatu jakin batean ondasunak eta zerbitzuak emateko edozein jarduera dela ulertuta). Bereziki, enpresatzat hartuko dira, gizabanako edo familia bezala, eskuz egindako edo beste edozein jarduera gauzatzen duten entitateak; erregularri jarduera ekonomiko bat gauzatzen duten pertsonen elkarteak eta asoziazioak ere enpresatzat hartuko dira."

Enpresa txiki-txikien, txikien eta ertainen kategoriaren (ETE) barruan izateko, enpresek honako baldintza hauek bete behar dituzte: 250 langile baino gutxiago izatea eta urteko negozio bolumena 50 milioi eurotik gora ez izatea, edo urteko balantze orokorra 43 milioi eurotik gora ez izatea.

ETE kategorien arabera honako ezaugarriak dituen enpresa hartzen da enpresa txikitzat: 50 langile baino gutxiago izatea eta urteko negozio bolumena edo urteko balantze orokorra 10 milioi eurotik gora ez izatea.

- 1.5** Laguntza Programa honen arabera, 651/2014 Erregelamenduaren I. eranskinaren 3. artikuluan xedatzen denez, haxe hartuko da kontuan:

1. «Enpresa autonomo» bat da, baldin eta ezin bada enpresa elkartutzat hartu, 2. atalaren arabera, ezta lotutako enpresatzat ere, 3. atalaren arabera.

2. «Enpresa elkartuak» dira lotutako enpresatzat jo ezin diren enpresa guztiak, 3. atalaren arabera, eta horien artean honako erlazio hau dago: enpresa bakar batek (partaidetzako enpresa) dauka bera bakarrik, edo lotutako enpresa batekin edo gehiagorekin, 3. atalaren arabera, beste enpresa baten (partaidetzako enpresa) kapitalaren edo boto eskubidearen % 25 edo gehiago.

Aurrekoa gorabehera, enpresa batek autonomoaren kalifikazioa izan dezake, enpresa elkarturik gabe, gehieneko muga den % 25 izan edo gainditzen bada ere, baldin eta jarraian aipatzen diren inbertsio kategoriak badira, eta horien artean, banaka edo batera, eta aipatutako enpresaren artean, 3. atalean azaltzen diren erlazioak edo loturak ez badaude.

a) Partaidetzako sozietate publikoak, arrisku kapitalen sozietateak, pertsona fisikoak, edo arrisku kapitalean (inbertsiogile probidentzialak edo business angels delakoa) inbertsioei lotutako jardueraren bat egiten duten pertsona fisikoen taldeak eta burtsan kotizatzen ez duten enpresetan funts propioak inbertitzen dituztenak; beti ere, aipatutako inbertsiogile probidentzialen inbertsioa enpresa berean 1.250.000 euro baino txikiagoa bada.

b) Irabazi asmorik gabeko unibertsitateak edo ikerketa zentroak.

c) Inbertsiogile instituzionalak, eskualde edo erkidegoen garapenerako funtsak barne.

d) Urtean 10 milioi euroko aurrekontua baino txikiagoa eta 5.000 biztanletik behera duten toki agintari autonomoak.

3. «Lotutako enpresak» izango dira, baldin eta haien artean honako erlazioren bat izaten bada:

a) Enpresa batek beste enpresa baten akziodunen edo bazkideen boto eskubideen gehiengoa badu.

- b) Enpresa batek beste enpresa baten administrazio, zuzendaritza edo kontrol organoko kide gehienak izendatzeko edo kentzeko eskubidea badu.
- c) Enpresa batek beste enpresa batean eragin nagusia edo menderatzailea ezartzeko eskubidea badu, harekin sinatutako kontratu baten ondorioz, edo bigarren enpresaren estatutu-klausularen batek eraginda.
- d) Enpresa batek, beste enpresa baten akzioduna edo elkartua, bigarren enpresaren akziodun edo bazkideekin izenpetutako akordio baten bidez, haren akziodunen edo bazkideen boto eskubideen gehiengoa kontrolatzen badu bakarrik.

Eragin nagusirik ez dagoela pentsatuko da, baldin eta 2. ataleko bigarren paragrafoan aipatzen diren inbertsiogileek enpresaren kudeaketan inplikazio zuzenik edo zeharkakorik ez badute, akziodunak diren aldetik, dagozkien eskubideei uko egin gabe.

Enpresek lehen paragrafoan aipatzen diren erlazioetako bat izanez gero, beste enpresa baten edo batzuen bitartez, edo 2. atalean azaltzen diren inbertsiogileekin, lotutako enpresatzat ere hartuko dira.

Era berean, lotutako enpresatzat joko dira, baldin eta aipatutako erlazioaren bat badute pertsona fisiko baten bidez edo elkar hartutako pertsona fisikoen talde baten bitartez, eta enpresa horien jarduna edo zati bat erreferentzia-merkatu berean edo antzeko merkatuetan gauzatzen bada.

«Antzeko merkatu»tzat hauxe hartuko da: beste merkatu baten aurreko edo atzeko posizioan dagoen produktu edo zerbitzu baten merkatua.

4. 2. ataleko bigarren paragrafoan aipatzen diren kasuak izan ezik, enpresa bat ez da ETetzat joko, baldin eta haren kapitalaren edo boto eskubidearen % 25 edo gehiago, zuzenean edo zeharka, banaka edo batera, erakunde publiko baten edo gehiagoren kontrolpean badaude.

5. Enpresek beren kalifikazioaren inguruko deklarazio bat egiteko aukera izango dute, autonomoa, elkartua edo lotutako enpresa den adieraziz; baina 2. artikuluan deskribatzen diren mugei lotutako datuez ere. Kapitalaren banaketa dela eta, zehaztasun handiz ez badago jakiterik noren esku dagoen, deklarazio hori egin dezakete. Horrela bada, fede onez edo onustez egingo du deklarazioa enpresak, presuntzio legitimoz, haren kapitalaren % 25 edo gehiago ez dela beste enpresa baten jabetzakoa, edo haien artean lotutako enprekin batera daukala. Nolanahi ere, deklarazio horiek ez dute salbuesten Estatu edo Europa mailako araudiek ezartzen dituzten kontrolak eta egiaztapenak egitetik.

1.6 Era berean, Laguntza Programa honen arabera, diru laguntza jasoko duten 651/2014 Erregelamenduaren barruko proiektuek erakutsi beharko dute laguntza programa honek ondorio sustatzaile edo pizgarria duela (651/2014 Erregelamenduaren 6.2 artikulua). Ondorio horietarako, diru laguntzek ondorioa sustatzailetzat hartzeko, kontuan hartu beharko dira baldintza hauek:

- Laguntza Programa honen arabera, proiektuari edo jarduerari ekin aurretik, onuradunak diru laguntza eskatu badu idatziz, eta eskaera horrek, gutxienez, 651/2014 Erregelamenduaren 6.2 artikuluan xedatutako informazioa badu.
- Enpresa handien kasuan, lehengo paragrafoan adierazitako betekizunaz gain, diru laguntzak ondorio sustatzaile duela kontsideratuko da baldin eta honako egoeraren bat gertatzen bada: (i) proiektuaren edo jardueraren irismena nabarmen areagotzen bada, diru laguntzari esker, edo (ii) onuradunak proiektuan edo jardueran egindako guztizko inbertsioaren zenbatekoa nabarmen areagotzen bada, diru laguntzari esker, edo (iii) proiektua edo jarduera gauzatzeko erritmoan aurreratze nabarmena gertatzen bada.

Beraz, diru laguntza eskaera egin aurretik hasitako proiektuen edo lanen eskabideak ez dira onartuko, eta proiektuen edo lanen hasieratzat joko da 651/2014 Erregelamenduaren 2.(23) artikulua definitzen duena.

2. ONURADUNAK

- 2.1 Diru laguntza programa honen onuradunak hauexek izan daitezke: ESE moduan diharduen edozein pertsona juridiko. Diru laguntzez baliatzeko jarduerak 4. oinarri edo atalean zehazten dira, eta jarduera horiek EAE egin behar dira.

Laguntza programa honen arabera, ESEtzat hauxe hartuko da:

“Erabiltzaile baten instalazioetan energia zerbitzuak ematen dituen pertsona juridikoa, eta hori egitean arrisku ekonomikoren bat bere gain hartzen duena; betiere, emandako zerbitzuen ordainketa, aldez edo osoa, energiaren aurrezpenaren lorpenean oinarritzen bada, energia eraginkortasuna hobetzeko edota energia berriztagarrien erabilera sustatzeko neurrien bitartez”.

- 2.2 Azaroaren 17ko diru laguntzez diharduen 38/2003 Legearen (aurrerantzean “LGS”) 13. artikuluan xedatzen diren eskakizunen arabera eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Orokorraren Antolamendu Printzipioen Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Dekretu Legegilearen (aurrerantzean “1/1997 Dekretu Legegilea”) 50. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, honako pertsona edo entitate hauek izan daitezke onuradunak: diru laguntza emateko eskatzen diren egoeran daudenak, edo oinarri hauetan eta deialdian aurreikusten diren baldintzak betetzen dituztenak.

Pertsonak edo erakundeak, onuraduna izateari begira, debekurik ez dutela justifikatzeko honako era honetan egin daiteke: LGSen 13.7 artikuluan eta 1/1997 Dekretu Legegilearen 50.6 artikuluan aurreikusten diren prozeduren bitartez.

- 2.3 Pertsona onuraduntzat jotzeko ezinbesteko baldintza izango da, diru laguntza eman aurretik zein diru laguntza emanez gero egoera edo baldintza horretan jarraitu ahal izateko, zergen eta gizarte segurantzaren inguruko betebeharrak edo ordainketak eguneratuak edukitzea, eta hala badagokio, diru laguntzak itzuli behar izateagatik betebeharren ordainketak ere.

- 2.4 Honako hauek ezin izango dira onuradunak izan:

- a) 1/1997 Dekretu Legegilearen 50.5 artikuluan eta LGSen 13.2 artikuluan adierazten diren egoeraren batean dauden eskatzaileak, baita zigortuta daudenak, administratibo edo penalki, diru laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galarazita dutenak, edo debekuren bat indarrean dutenak eta horretarako gaitasunik gabe uzten dietenak ere.
- b) Eusko Legebiltzarrak onartu zuen Herralde Pobretuekiko Justizia eta Elkartasunerako Gutuna, abenduaren 28ko 14/2007 Legea betez, enpresaren helburu sozialen edo jarduketan artean, osorik edo aldez, armen ekoizpen merkaturatze eta finantzaketa bada.
- c) 651/2014 Erregelamenduaren 1. artikuluan 4a) eta 4c) ataletan xedatzen denari jarraiki:
 - Berreskuratzeko agindu baten zain dauden enpresak, aldez aurretik Batzordeak emandako erabakiaren ondoren, diru laguntza barne-merkatuarekin legez kanpokoa edo bateraezina adierazten duena.
 - Krisian dauden enpresak, krisia jasaten duten enpresak bideratzeko eta birmoldatzeko Estatuko diru laguntzei buruzko EBren jarraibideen arabera.
- d) 2007ko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak xedatutakoaren arabera, gizon eta emakumeen arteko benetako berdintasunaren aldekoa, 250 langile baino gehiago dituzten enpresek Berdintasun Planik ez badute.

3. AURREKONTUAREN ZENBATEKOA ETA ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA

Laguntza programa honi esleitutako diru-saila edo aurrekontua **hirurehun mila (300.000) eurokoa** da, EEE Energiaren Euskal Erakundearen (aurrerantzean “EEE”) aurrekontuetan horretarako ezarri den kredituaren arabera.

EEEren guztizko diru laguntza kantitatea ez da 300.000 eurokoa baino handiagoa izango.

Laguntza programa honen arabera, Euskal Herriko Agintaritza Aldizkarian (aurrerantzean EHAA) iragarkia argitaratzen den egunaren biharamunean hasiko da eskabideak aurkezteko epea programa honen kontura, eta programari esleitutako diru-saila agortu arte zabalik egongo da.

Nolanahi ere, aipatutako aurrekontua 2017ko azaroaren 30ean amaitu edo agortuko ez balitz, egun hori izango litzateke azken eguna diru laguntza eskabideak aurkezteko.

Epeak zenbatzeari begira, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 30. artikuluan xedatutakoa beteko da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkideaz diharduena (aurrerantzean **39/2015 Legea**). Aipatzen diren egunei dagokienez, egun baliodunak dira, eta, beraz, kopuru horretatik larunbatak, igandeak eta jaiegunak kanpoan geratuko dira.

Aurrekontuaren agortzearen berri emango da EHAA-n nahiz Interneteko helbide honetan: <http://www.eve.eus>.

Laguntza Programa honen arabera, diru laguntza eskabide osoak aurkeztuta eta bideratzen egongo diren arren, bazter egingo dira, baldin eta esleitutako aurrekontua amaitzen bada, EEEko zuzendari nagusiak emango duen ebazpenaren bidez.

4. DIRUZ LAGUNDUKO DIREN JARDUERAK ETA LAGUNTZEN ZENBATEKOA

Laguntza programa honen esparruan, energia eraginkortasun eta energia berriztagarriak sustatzeari begira, ESE batek egiteko, ematen diren diru laguntzez baliatzeko jarduerak 4. atalean zehaztean dira, eta jarduera horiek Euskal Autonomia Erkidegoaren (aurrerantzean EAE) barruan dauden Euskadiko Administrazio Publikoaren eraikinetan edota kanpoko argiteria publikoko instalazioetan egin behar dira. **Jarduera horiek diru laguntza eskabidea aurkeztu den egunaz geroztik 2017ko abenduaren 31 bitartean** egin eta fakturatuta egon beharko dira (651/2014 Erregelamenduaren 2.(23) artikulua).

Laguntza programa honek ESEri zuzendutako diru laguntza lerro bat ezartzen du, Euskal Autonomia Erkidegoko Toki eta Autonomia Administrazioetako jarduteko unitateren batean energia aurrezteko, eraginkortasuna hobetzeko edo energia berriztagarrien erabilera sustatzeko neurrietan inbertsioak egiteko kontratuen esleipendunak izaten direnean, kasuan kasuko kontratuan xedatzen denari jarraiki, eta horretarako egiten den kontratazio prozedura edozein dela ere.

Laguntza programa honen arabera, jarduteko unitateetat haxe hartuko da: energia aurrezteko edota energia berriztagarriak ustiatzeko potentzial nabarmena duen instalazioa, bai eraikuntza alorrean bai argiteria publikoaren esparruan.

Energia zerbitzuen eskaintzan, dagozkion administrazio agiri edo pleguetan, edo sinatu beharreko kontratuan, hala badagokio, haxe adierazi beharko da: **ESEri ematen zaion diru laguntzak instalazioen jabea den administrazioari eragin behar diola bere osotasunean**, energia zerbitzuaren prezioaren murrizketa baten bidez, kontratua indarrean egongo den denbora aldatuz, edo aldeztatik hitzartuko duten beste modu baten bitartez. Edozein kasutan ere, aipatutakoa egiaztatzea ahalbidetzen duen beharrezko informazioa aurkeztu beharra dago.

Euskadiko Toki edo Autonomia Administrazioaren jarduteko unitateetan egingo diren inbertsioetan emango den diru laguntzaren ehunekoak hauexek dira:

- Energia eraginkortasun alorreko jarduerak izango duten diru laguntza kostu lagungarriaren %25 izango da. Gainera, honako kasu hauek kontuan hartuko dira:
 - o Jarduteko unitateak eraikin publikoko instalazioak nahiz argiteria publikoko instalazioak baditu, diru laguntzari %5eko gehigarri bat erantsiko zaio; beraz, diru laguntzaren gehieneko ehunekoak, kostu lagungarriaren %30 izango da.

- o Administrazio publiko kontratatzailea udal mankomunitate bat edo antzekoa bada, diru laguntzari %5eko gehigarri bat erantsiko zaio; beraz, diru laguntzaren gehieneko ehunekoa, kostu lagungarriaren %30 izango da.
- Energia berriztagarrien alorreko jarduerak, energia instalazio motaren arabera, izango duten gehieneko diru laguntza kostu lagungarriaren %30 edo %35 izango da.
- Nolanahi ere, aplikatuko diren diru laguntzaren ehunekoak bat etorriko dira 651/2014 Erregelamenduan xedatutakoarekin; zehazki, haren 38. artikulua 4. eta 5. atalean, 40. artikulua 5. atalean, 41. artikulua 7. eta 8. atalean eta 46. artikulua 3. atalean adierazitakoa.

4.1 DIRUZ LAGUNDUKO DIREN JARDUERAK ENERGIA ERAGINKORTASUN ALORREAN

4.1.1 Kanpoko argiteria publikoa

Laguntza programa honen arabera, atal edo neurri honen barruan sartuko diren jarduerak kanpoko argiteria publikoan energia elektrikoaren kontsumoa gutxitzea ekarri beharko dute. Horrekin batera, kanpoko argiteria instalazioetan energia eraginkortasunaz diharduen azaroaren 14ko 1890/2008 Errege Dekretuak eta bere jarraibide tekniko osagarriak, EA-01etik EA-07ra, (aurrerantzean **1890/2008 E.D.**) kanpoko argiteria publikoak xedatutakoa bete egingo dute.

Proiektuek A klaseko energia kalifikazioa izan beharko dute (justifikazio dokumentalaren bidez), 1890/2008 E. D.ek xedatutakoa betez.

4.1.2 Egungo eraikin publikoak

Laguntza programa honen arabera, atal edo neurri honen barruan sartuko diren jarduerak eraikinetan energia elektrikoaren edota erregaien kontsumoa gutxitzea ekarri beharko dute, baita energia berriztagarriak ustiatzeko instalazio berriak ezartzea ere. Horrekin batera, Eraikinaren Energia Eraginkortasun Ziurtagiria erregistratuta eduki beharko dute, hobekuntza ezarri ondoren, 2013ko apirilaren 5eko 235/2013 Errege Dekretuaren arabera (aurrerantzean **235/2013 E.D.**), eraikinen energia eraginkortasuna ziurtatzeko oinarritzko prozedura onartzen duena, eta jarraian azaltzen diren baldintzen arabera:

- a) *Klimatizazio edota ur bero sanitarioa (A.C.S.)* ekoizteko instalazioak energia konbentzionalekin. "Energia Eraginkortasun Handia" irizpidea kontuan hartuta egingo diren proiektuak, hau da, tenperatura baxuko galdarak, kondentsazio bidezkoak eta hozteko eraginkortasun koefiziente handia duten hozte ekipoak, eta gainera, telekudeaketa egiteko aukera ematen duen erregulazio zentralizatua daukatenak (monitorizazioa).
- b) *Baterako sorkuntza instalazioak*. Atal edo neurri honen barruan sartuko diren energiari lotutako jarduerak baterako sorkuntza edota hiruko sorkuntza instalazioaren bat jartzea ekarri beharko dute.

Atal honen barruan, diruz lagunduko diren instalazioen jarduerak 56/2016 Errege Dekretuan, otsailaren 12koan, jasota egon behar dira, 2012ko urriaren 25eko Kontseiluaren eta Europar Parlamentuaren 2012/27/CE Zuzentarauaren transposizioa dena, energia auditoriez, zerbitzuen hornitzaileen akreditazioaz, energia auditoregileez eta energia eraginkortasunaz diharduena.
- c) *Barneko argiztapen instalazioak*. Atal edo neurri honen barruan sartuko diren jarduerak eraikinen barneko argiztapen instalazioetan energia elektrikoaren kontsumoa gutxitzea ekartzeaz gain, sistema-kontrol zentralizaturen bat ere izan beharko dute (monitorizazioa).

4.2 DIRUZ LAGUNDUKO DIREN JARDUERAK ENERGIA BERRIZTAGARRIEN ALORREAN

4.2.1 Tenperatura baxuko eguzki-instalazio termikoak

Laguntza Programa honen kontura diruz lagunduko diren jarduerak honako hauek dira: tenperatura baxuko **eguzki-instalazio termikoak**, kolektore zapalak dituztenak, ur bero sanitarioa (aurrerantzean

“A.C.S.”) ekoizteko CPC edo huts-hodidunak, klimatizazioak, industria-prozesuetan ura berotzeko ekoizpenari lotutakoak, etab. Ez da mugarik jartzen instalatu beharreko azalerari dagokionez.

Ezin izango dira baliatu Laguntza Programa honetaz, inongo ataletan, baldin eta energia berriztagarrien instalazioak egitearen kausa, aldez edo osorik, Eraikuntza Kode Teknikoak (aurrerantzean “CTE”) ezarri badu, energia aurrezteari begirako oinarritzko eskakizunak betetzeko, edo eraikuntzari lotutako gainerako kalitate-helburuak betetzeko.

Aplikazio eremuan kasu hauek aurreikusten dira:

- Elementuko instalazioak. Eguzki-erradiazioaren xurgatetik abiatuta, fluidoren bat berotzeko eguzki-energia sistema termikoak. Horretarako, eguzki-kolektoreak erabiliko dira eta hauen galera-koefiziente globala $9 \text{ W}/(\text{m}^2 \text{ } ^\circ\text{C})$ baino txikiagoa izango da aplikazio termikoetan erabiltzeko.
- Sistema aurrefabrikatuak dituzten instalazioak. Eguzki-erradiazioaren xurgatetik abiatuta, fluidoren bat berotzeko eguzki-energia sistema termikoak ez-zuzenak; berdin dio sistema trinkoa edo sistema zatikatua izatea. Eguzki-kolektoreen galera-koefizientea $9 \text{ W}/(\text{m}^2 \text{ } ^\circ\text{C})$ baino txikiagoa izango da.

Ekipo zuzenak ez dira diruz lagunduko.

- Aplikazio bereziak. Hozteko aplikazioak edo 60°C -tik gorako diseinu-tenperaturetan egiten diren beste aplikazio batzuk; hartzailea homologatzeko kurba koadratikoaren aurrean, %40ko errendimenduak baino hobeak lortzen $(t_m - t_a) = 60^\circ\text{C}$ eta $I = 800 \text{ W}/\text{m}^2$ direnean. Hozteko aplikazioetan, hotza sortzeko ekipoa ere kostu lagungarriaren partetzat hartuko da.

Hartzeko azalera erabilgarria 40 m^2 baino handiagoa duten eguzki instalazio termikoetan energia neurtzeko sistema bat ezarri beharra dago zirkuitu primarioan, eguzki sistemak dakarren energia kuantifikatzea ahalbidetzen duena. Era berean, aukera interesgarria da instalazio txikietarako, aipatutako muga duten instalazioetarako, hain zuzen ere.

Erreferentzia kostuak, instalatutako potentzia-unitateko, edo hartzeko eremu-unitateko, inbertsio handiena izango dena, eta diru laguntzaren ehunekoa hauexek izango dira:

Kategoria	Erreferentzia kostua €/kW (*) (€/m ²)		Diru laguntza / Erreferentzia kostua
Sistema aurrefabrikatuak	1.160 €/kW (812 €/m ²)		%35
Elementuko sistemak	14 kW-eraino (20 m ²)	1.160 €/kW (812 €/m ²)	
	14 kW-etik gora (20 m ²)	1.015 €/kW (710,5 €/m ²)	
Aplikazio bereziak	1.450 €/kW (1.015 €/m ²)		

(*) Laguntzen programa honen ondorioetarako, hartzeko azalera edo eremu homologatua $0,7 \text{ kW}/\text{m}^2$ erlazioa da.

4.2.2 Biomazaren erabilera termikorako instalazioak

Laguntzen programa honen kontura diruz lagunduko diren jarduerak hauexek dira:

- **Galdara-gela** berriak, beroa ekoizteko biomasa erabiliko dituzten instalazioak (ur beroa, ur birberotua edo lurruna), eta, hala badagokio, hotza ekoizteko, ustiapen termikoa sortzeko.

Energia instalazio berri horien (galdara-gelak) potentzia 70 kW-etik (>70 Kw) gorakoa izango da, eta haien erabilera eremua hau baino ez da izango: Euskadiko Toki eta Autonomia Administrazioa.

Aire beroa ekoizteko galdaren kasu partikularra ere kontuan hartuko da. Nolanahi ere, kasu honetan instalatzera potentzia nominala >70 kW-ekoa izango da.

- **Galdaren** bidez biomasa erabiltzeko egungo instalazioetan lotura edo konexio berriak, district heating konfigurazioaren arabera eta bero energia edo kalorifikoa ekoizteko.

Aplikazio eremuan kasu hauek aurreikusten dira:

- Ez da gehieneko mugarik jartzen instalaturako potentzia termiko izendatuari dagokionez; hala ere, ez da 70 kW-ekoa baino txikiagoa.
- Siloa - Erregaia tratatzeko eta elikatze sistema: instalazio termikoa (galdara...) behar bezala ibiltzeko erregaia prestaketa eta elikatzea.
- Galdara - Errekuntza sistema: biomasaren errekuntza bidezko beroa sortzeko bakarrik prestatuta badago, sistemaren karga erabilgarria transferituz, eta keak behar bezala kanporatzen direla bermatuz.
- Banaketa sistema: eraikinean bertan erabiltzeko, edo bero eta hozteko hodietatik zehar barrutiko sistemak direnean (district heating delakoa), baita kontrol eta erregulazioa egiteko sistema denean ere.
- Konexio sistema: bero eta hozteko barrutiko sistemaren hodi-sare nagusitik konexioaz gainera, trukagailua eta gainerako tresna osagarriak ere kontuan hartzen dira. Hartara, kontsumo-gune berrira hornidura termiko egokia bermatuko da.
- Kontrol eta monitorizaziorako sistema. Laguntza Programa honen arabera, diruz lagunduko diren instalazioen potentzia termiko izendatua 70 kW-ekoa baino handiagoa izango da; beraz, erregaia eta energia elektrikoaren kontsumoak neurtzeko sistema bat ezarri beharra dago, establezimendutik beste erabilera batzuetatik sor daitezkeen kontsumoetatik bereizi ahal izateko.

Oinarrizko erreferentzia kostua, 350 €/kW eskari dena, 550 €/kW eskari kantitateraino areagotu daiteke, bero eta hozteko hodietatik zehar barrutiko sistemak direnean (district heating); hau da, 200 €/kW eskari gehigarria aplikatuko da.

8. Oinarriko h atalean azaltzen den bezala, ezinbestekoa da proiektuaren memoria tekniko-ekonomikoan bero edota hotz eskariaren gehieneko potentziari buruzko datuak agertzea.

Beretzeko edo hozteko potentzia izendatu edo nominalei dagokienez, aurreko paragrafoan aipatzen diren eskari kalkuluetan lortutako balioak eta fabrikatzaileek beren gailuen ezaugarri teknikoek berri emateko orrietan agertzen direnak egokiak edo proportzionalak izan behar dira. Nolanahi ere, **potentzia eskariaren kalkuluetan lortzen diren balioak izango dira diru laguntzak emateko edo kalkulatzeko erabiliko direnak**; izan ere, kalkulaturako eskariaren maila ase behar izanez gero, instalatu beharreko gailu edo ekipoen datu teknikoek azalduko dituzten potentzien balioak kalkulaturakoak baino handiagoak izango dira. Alde horretatik, **ez zaio diru laguntzarik emango, inola ere, instalatuko diren ekipoen gairidimentsionamendu potentziari.**

Erreferentzia kostuaren aldean, diru laguntzaren ehunekoa bakarria izango da, %35, hain zuzen ere.

Kategoria	Erreferentzia kostua €/kW gehieneko eskaria	Diru laguntza / Erreferentzia kostua
Galdara-gelak	350etik 550eraino	%35

Bero sorgailuen instalazioen kasu partikularretarako, aire beroa ekoiztea izanik ondorio erabilgarria eta potentzia izendatua edo nominala 70 kW baino handiagoa denean, bero sortzeko unitate berrien instalazioaren erreferentziako kostua, bero eskariaren gehieneko potentzia unitateko inbertsio handiena adierazita, 75 €/kW eskari izango da, erreferentzia kostuaren aldean, diru laguntza %35 izango da.

Energia instalazio mistoen kasu partikularretarako, proiektuaren memoria tekniko-ekonomikoan deskribatuko direnak, **8. Oinarriko h. atalean** azaltzen den bezala, diru laguntzak emateko kontuan

hartuko den kalkulu potentzia hauxe izango da: biomasa-galdarak egiten duen ekarpen espezifikoa, guztizko eskari potentzia ase edo betetzeari begira.

Egungo bero eta hozteko barrutiko sistemekiko konexio berrietarako erreferentzia kostua era honetan ebaluatuko da: konexio bakoitzeko 2.000 euroko erreferentzia kostu estandarra ezarriz. Erreferentzia kostuaren aldean, diru laguntzaren ehunekoa bakarra izango da, %50, hain zuzen ere. Beraz, gehieneko diru laguntza 1.000 eurokoa izango da, aurkeztutako inbertsioa txikiago bada, goraxeago aipatu den erreferentzia kostuarekin konparatuta, azkenean emango den diru laguntzari %50ekoa aplikatuko zaio.

Biomasaren aprobetxamendu termikorako instalazioei dagokienez, instalatutako potentzia termiko izendatua 70 kW-etik gorakoa direnean, eta bero eta/edo hozteko barrutiko sistema (district heating) gisa eratuak, diru laguntza eskaera bi fase ezberdinetan aurkezteko aukera izango dute: ekipoen gela egiteko fasea, eta termikoaren banaketa sarea (hodi sarea) egiteko eta instalazio osoa martxan jartzeko fasea. Prozedura orokor zehatzez egingo den ebaluazio osoa gauzatu ondoren, emango den diru laguntza minorizatuko da, lehen/bigarren fasearen inbertsioaren proportzionaltasunaren kantitatara. Lehen/bigarren faserako minorizazioaren ondorioz aterako den balioa izango da emango den diru laguntza 2017ko ekitaldian.

Ildo horretatik, Laguntza Programa honen bidez diru laguntza emango bada ere, 2017ko ekitaldian gauzatuko ez den faserako ez da baliagarria izango; beste modu batera adierazita, ez da inolako konpromisorik hartuko 2018ko aldirako diru laguntza emateari begira EEEn aldetik. Hori horrela, 2018ko ekitaldian horrelako instalazioetarako EEEk diru laguntza programaren bat argitaratuko balu, aurreko ekitaldian (2017) diru laguntzaz baliatutako onuradun guztiek beste eskaera bat aurkeztu beharko dute 2018ko ekitaldirako, egin gabe izan dezaketen fasea gauzatzeari begira. Gainera, urte batetik bestera, instalazio mota horiek diruz laguntzeko kalkulu-parametroetan aldaketak egon daitezkeela kontuan hartu beharko da.

4.2.3 Geotrukaketa-instalazioak

Laguntzen programa honen kontura diruz lagunduko diren jarduerak hauexek dira:

- **Ekipo-gela** berriak, beroa ekoizteko bero-ponpa geotermikoak erabiliko dituzten instalazioak (ur beroa, ur birberotua edo lurrina), eta, hala badagokio, hotza ekoizteko.

Energia instalazio berri horien (ekipo-gelak) potentzia 70 kW-etik (>70 Kw) gorakoa izango da, eta haien erabilera eremua hau baino ez da izango: Euskadiko Toki eta Autonomia Administrazioa

Aplikazio eremuan kasu hauek aurreikusten dira:

- Lurpeko energia termikoa ustiatzeko sistemak, bero edota hotz forman kontsumitzeko. Ez da mugarik ezarriko potentzia termiko izendatuari dagokionez; hala ere, ez da 70 kW baino txikiagoa.
- Makinen energia eraginkortasunak 4 baino handiagoa izan beharko du, fabrikatzaileak emandako informazio teknikoaren arabera, bai COP (lurrungailuaren irteeran 0°C-ko tenperatura eta kondentsadorearen irteeran 35°C-ko tenperatura erreferentzia izanik), bai EER (lurrungailuaren irteeran 0°C-ko tenperatura eta kondentsadorearen irteeran 35°C-ko tenperatura erreferentzia izanik) kasurako.
- Laguntza Programa honen bidez diruz lagunduko diren instalazioen potentzia termiko izendatua 70 kW-etik gorakoa denez gero, behar-beharrezkoa da monitorizazio sistema bana ezartzea energia elektrikoaren kontsumoa neurtzeko eta sortuko den energia termikoarena.

Erreferentzia kostua, diruz lagunduko den potentzia unitateko inbertsio handiena izango dena. Azken hori honako honen emaitzaren balioa izango da: berokuntzarako eta hozterako eskariari dagokion kalkulaturako gehieneko potentziaren eta xurgatutako potentzia elektrikoaren arteko aldea; baita diru

laguntzaren ehunekoa, erreferentzia kostuaren aldean ere, proiektu mota bakoitzerako hauexek izango dira:

Instalazio mota	Erreferentzia kostua €/kW Gehieneko eskaria	Diru laguntza / Erreferentzia kostua
Zirkuitu zabaleko instalazioetarako (berinjekziorik gabe)	250	%30
Zirkuitu zabaleko instalazioetarako (injekzioarekin) eta zirkuitu itxiko instalazioetarako trukaketa horizontalarekin	525	%30
Zirkuitu itxiko instalazioetarako trukaketa bertikalarekin	1.200	%30
Barrutiko sare geotermikoen instalazioetarako (district heating)	2.000	%30

8. Oinarriko h atalean azaltzen den bezala, ezinbestekoa da proiektuaren memoria tekniko-ekonomikoan bero edota hotz eskariaren gehieneko potentziari buruzko datuak agertzea.

Berotzeko edo hozteko potentzia izendatu edo nominalei dagokienez, aurreko paragrafoan aipatzen diren eskari kalkuluetan lortutako balioak eta fabrikatzaileek beren gailuen ezaugarri teknikoek berri emateko orrietan agertzen direnak egokiak edo proportzionalak izan behar dira. Nolanahi ere, **potentzia eskariaren kalkuluetan lortzen diren balioak izango dira diru laguntzak emateko edo kalkulatzeko erabiliko direnak**; izan ere, kalkulaturako eskariaren maila ase behar izanez gero, instalatu beharreko gailu edo ekipoen datu teknikoek azalduko dituzten potentzien balioak kalkulaturakoak baino handiagoak izango dira. Alde horretatik, **ez zaio diru laguntzarik emango, inola ere, instalatuko diren ekipoen gairuak gaituzten potentziari.**

Laguntzen programa honen arabera, energia instalazio mistoen kasu partikularretarako, proiektuaren memoria tekniko-ekonomikoan zehaztasunez ageriko direnak, **8. Oinarriko h atalean** azaltzen den bezala, diru laguntza emateari begira, trukaketa geotermiko instalazioak guztizko eskari potentziari egingo dion ekarpen espezifikoak izango dira kalkulatu potentzia.

Instalaturako potentzia termiko izendatu edo nominala 70 kWte baino handiagoa duten trukaketa geotermiko instalazioetan diru laguntza eskabidea bi fase ezberdinetan aurkeztu ahal izango dira: 1) zundaketen lanen fasea; eta 2) ekipo-gela (gela teknikoak) gauzatzearen eta instalazio osoa martxan jartzearen fasea. Prozedura orokorraren bidez egingo den ebaluazioa gauzatu eta gero, eman beharreko diru laguntza gutxitu egingo da, lehen/bigarren fasean egingo den inbertsioarekiko proportzionalki; lehen/bigarren fasearen gutxitze hori izango da emango den diru laguntza, 2017ko ekitaldiaren barruko eskabideari dagokionez.

Illo horretatik, Laguntza Programa honen bidez diru laguntza emango bada ere, 2017ko ekitaldian gauzatuko ez den faserako ez da baliagarria izango; beste modu batera adierazita, ez da inolako konpromisorik hartuko 2018ko aldirako diru laguntza emateari begira EEEren aldetik. Hori horrela, 2018ko ekitaldian horrelako instalazioetarako EEEk diru laguntza programaren bat argitaratuko balu, aurreko ekitaldian (2017) diru laguntzaz baliatutako onuradun guztiek beste eskaera bat aurkeztu beharko dute 2018ko ekitaldirako, egin gabe izan dezaketen fasea gauzatzeari begira. Gainera, urte batetik bestera, instalazio mota horiek diruz laguntzeko kalkulu-parametroetan aldaketak egon daitezkeela kontuan hartu beharko da.

4.2.4 Sare elektrikora konektatutako eguzki-instalazio fotovoltaikoak

Laguntzen programa honen kontura diruz lagunduko diren jarduerak hauexek dira:

- Sare elektrikora konektatutako eguzki-instalazio fotovoltaiko berriak, sorkuntza elektrikoa autokontsumitzen dutenak edota sare elektrikora bideratzen dutenak, dagokion konexio-gunearen bidez.

Instalazio mota hauek diruz lagunduko dira, baldin eta inbertitzaile guztien izendatutako gehieneko potentzia instalatuak 1 MW gainditzen ez badu.

Erreferentzia kostua, instalatutako alderanzgailuen potentzia elektriko izendatu unitateko inbertsio handiena izango dena, eta diru laguntzaren ehunekoa, erreferentzia kostuaren aldean, proiektu mota bakoitzerako hauexek izango dira:

Instalazio mota	Erreferentzia kostua €/Wp	Diru laguntza / Erreferentzia kostua
Instalazio fotovoltaikoa, potentzia instalatua 5 kW-eraino (alderanzgailuak)	2,5	%30
Instalazio fotovoltaikoa, potentzia instalatua 5 kW baino handiagoa (alderanzgailuak); lehen 5 kW-ei dagokienez	2,5	%30
Instalazio fotovoltaikoa, potentzia instalatua 5 kW baino handiagoa (alderanzgailuak); gainerako potentzia, 1 MW-eko mugaraino	1,5	%30

5. KOSTU LAGUNGARRIA

5.1 DIRUZ LAGUNDUKO DIREN JARDUERAK

- **4. Oinarriko 4.1.1 eta 4.1.2 a) eta c) ataletan** aurreikusten diren diru laguntzei dagokienez, laguntza programa honen arabera, energia eraginkortasun maila handiagoa lortzeko behar diren inbertsio-kostu gehigarriak lagunduko dira diruz. Aipatutako Inbertsio kostu horiek era honetan kalkulatu dira:
 - Energia eraginkortasunean inbertsio-kostuak inbertsio bereizi gisa identifikatu ahal direnean guztizko inbertsio-kostuetan, energia eraginkortasunari lotutako kostu horiek diruz lagunduko dira.
 - Gainerako kasu guztietan, energia eraginkortasunean inbertsio-kostuak antzeko inbertsio baten erreferentzia hartuta zehaztuko dira, energia eraginkortasun txikiagoa dakarrena, modu sinesgarrian diru laguntzarik gabe egin zitekeena; bi inbertsio horien arteko kostuen aldeak zehaztuko du energia eraginkortasunari lotutako kostua, eta diruz lagunduko den kostua edo kostu lagungarria izango da.

Energia eraginkortasun maila areagotzeari zuzenki lotuta ez dauden kostuak ez dira diruz lagunduko, laguntza programa honen arabera.

- **4. Oinarriko 4.1.2 b) atalean** aurreikusten diren diru laguntzei dagokienez, baterako sorkuntza instalazioak eraginkortasun handiko instalazio moduan funtzionatzeko behar diren ekipoetan egingo diren inbertsio-kostu gehigarriak lagunduko dira diruz, ahalmen bera duten elektrizitate edo berokuntza instalazio konbentzionalekin konparatuta, edo eraginkortasuna hobetzeko inbertsio-kostu gehigarriak, egungo instalazioak eraginkortasun handiko atalasea betetzen duenean.
- **4. Oinarriko 4.2.2 eta 4.2.3 ataletan** aurreikusten diren diru laguntzei dagokienez, laguntza programa honen arabera, energia aldetik eraginkorrak diren berokuntza eta hozteko hiri-sistemak (District Heating) egitea aurreikusten diren jardueren kasuan; goraxeago aipatutako diru lagungarria era honetan kalkulatu da:

- Ekoizpen instalazioaren kasuan, sorkuntza unitate baten edo batzuen eraiki, handitu edo berritzeko behar diren kostu gehigarriak lagunduko dira diruz, energia aldetik eraginkortasunez funtzionatzen duten berokuntza eta hozte hiri-sistema moduan erabiltzen direnak, ekoizpen instalazio konbentzional batekin konparatuta. Energia aldetik eraginkortasunez funtzionatzen duten berokuntza eta hozteko hiri-sistemaren barruan egongo dira inbertsioak.
- Banaketa sareari dagokionez, inbertsio-kostuak izango dira kostu lagungarriak.
- **4. Oinarriko 4.2.1, 4.2.2, 4.2.3 eta 4.2.4 ataletan** aurreikusten diren diru laguntzei dagokienez, laguntza programa honen arabera, iturri berriztagarrietatik datorren energiaren ekoizpena sustatzeko behar diren inbertsio-kostu gehigarriak izango dira kostu lagungarriak. Aipatutako kostu horiek era honetan kalkulatu dira:
 - Energia iturri berriztagarrietatik datorren energiaren ekoizpenean egindako inbertsio-kostuak inbertsio bereizi gisa identifikatu ahal direnean guztizko inbertsio-kostuetan, adibidez, erraz identifika daitekeen osagai erantsiren bat egungo instalazio batean jartzeko, energia iturri berriztagarrietatik datorren energiari lotutako kostu horiek diruz lagunduko dira.
 - Energia iturri berriztagarrietatik datorren energiaren ekoizpenean egindako inbertsio-kostuak antzeko inbertsio baten erreferentzia hartuta identifikatu ahal direnean, ingurumena gutxiago errespetatzen badu ere, modu sinesgarrian diru laguntzarik gabe egin zitekeena, bi inbertsio horien arteko kostuen aldeak zehaztuko du energia iturri berriztagarrietatik datorren energiari lotutako kostua, eta diruz lagunduko den kostua edo kostu lagungarria izango da.
 - Tamaina txikiko zenbait instalazioen kasuan, ingurumena gutxiago errespetatzen duen inbertsioa zehazteko modurik ez badago, tamaina mugatua duten instalaziorik ez egiteagatik, ingurumen babes maila handiagoa lortzeko egingo den inbertsioaren guztizko kostuak izango dira kostu lagungarriak laguntza programa honen arabera.

Energia eraginkortasun maila areagotzeari zuzenki lotuta ez dauden kostuak ez dira diruz lagunduko.

Jarraian aipatzen diren aspektu hauek kontuan hartu beharko dira:

- Energia eraginkortasun atalean, gaininbertsioa “energia eraginkortasun handia” duen energia instalazio edo sistema jartzeko proiektuari dagokio, energia instalazio edo sistema konbentzionalaren ezaugarriak izan lituzkeen proiektuekin konparatuta.
- **4. Oinarrian** aurreikusten diren diru laguntzei dagokienez, gehieneko kostu lagungarria izango da lehen hamar (10) urtean lortzea espero den aurrezkiak amortizatuko dena.
- **4. Oinarrian** aurreikusten diren diru laguntzei dagokienez, diru laguntzaren gehieneko muga 1.200 €/tepEP/urteko) izango da (urtean tona petrolio baliokideko diru laguntzaren gehieneko ratioa, energia primarioaren unitateetan adierazita).
- ESE onuradunak izango dituen langileen ezaugarriak, proposatzen den energia sistema berriari loturik, ESE berak aurkeztuko duen ziurtagiri baten bidez egiaztatu beharko da. Ziurtagiri horretan, gainera, sistema edo instalazioaren lanetan arituko den langile bakoitzaren kategoria, jardunaldia eta orduko kostua adierazi beharko da. Proposatzen den energia sistema berriari zuzenki lotuta eta parte hartuko duten ESEko langileen euren eskulanaren kostu lagungarria, gehienez ere, proiektuaren kostu lagungarriaren %30 izango da.
- Energia berriztagarrien inbertsioei dagokienez, material eta esku lanari lotutako sail ekonomiko guztiak energia berriztagarriak ustiatzeko instalazioari esleituko beharko zaizkio zuzenki, eta ez, ordea, berriztagarriak ez diren beste teknologia batzuen erabileragatik (energia konbentzionalen bidez funtzionatzen duten energia instalazioak).
- Egingo diren inbertsioen nondik norakoa eta balioespena ESEren eta Administrazioaren artean sinatuko duten kontratuan jaso beharko dira. Era berean, laguntza programa honen arabera, kontratu horretan adieraziko da inbertsio horiek nola eragingo dioten deialdia egin duen administrazioari, kontratuaren prestazioak amaitu eta gero.

5.2 KOSTU LAGUNGARRIAREN BARRUAN SARTUKO EZ DIREN JARDUERAK

- Argiztapen jardueretan larrialdi edo segurtasun argiztapenak ez dira kostu lagungarria izango.
- Fakturatutako ondasunak edo zerbitzuak eskuratzeko ordaindu den BEZa, eta, oro har, zergak.
- Inbertsioaren ondorioz eragindako finantza-gastuak, pertsonal propioari dagozkionak (5.1 atalean ezarritako muga lagungarriaren gainetik geratzen direnak) eta lurra erosteko gastuak.
- Ekipo erabiliak eskuratzeko inbertsioak.
- Honako hauek erosteko inbertsioak: makineria autopropulsatua, ibilgailuak, bizikletak eta, oro har, salgaiak eta bidaiariak garraiatzeko garraio bideak.
- Egungo eraikinetan instalazio eta ekipoen berritzea, lokal edo eraikinaren erabilera edo jardunaren aldaketaren ondorioz bada ekintza edo jarduerak.
- Obra zibilean egindako gastutzat har daitezkeen sail ekonomikoa, barrutiko sareetan (district heating) kasuetan izan ezik, biomasa edota energia geotermikoa erabiltzen duten instalazioen bidezko berokuntzarako.
- Eta, orokorrean, behar bezala zehaztu eta definitu gabeko gastu guztiak, edo inbertsioaren energia helburuak lortzea xede zuzena ez duten gastuak.

6. DIRU LAGUNTZEI MUGAKETA OROKORRAK

6.1 Diru laguntzen zenbatekoaren muga

Energia eraginkortasun alorrean eta energia berriztagarri esparruan laguntzen programa honen kontura gauzatu diren jardueretan, onuradun bakar batek jaso dezakeen gehieneko diru laguntza **ehun mila (100.000) eurokoa** izango da, eta ez du inola ere gaitutako proiektu mota bakoitzerako ezarritako ehunekoak, oinarri hauetako 4. atalean azaltzen direnak.

Edozein kasutan, diru laguntzaren zenbatekoak ezin izango du kostu lagungarriaren %30 gaitutako energia eraginkortasun alorreko jardueren kasuan, biomasaren energia aprobetxamenduaren kasuan, berriz, %35, eta kostu lagungarriaren %30 izango da energia berriztagarriak erabiltzen dituzten gainerako instalazioei dagokienez, salbu eta lehendik dauden barrutiko berokuntza eta hozte sistemekin konexio berrien kasuan, hauen gehieneko ehunekoak %50 izango da.

6.2 Beste laguntza batzuekiko bateragarritasun erregimena

- Dokumentu honetan jasotzen den xede bera izanik, beste erakunde edo elkarte publiko zein pribatu batzuek emandako diru laguntzak bateragarriak izango dira programa honetan ematen direnekin, baldin eta diru laguntza guztiak batera kostu lagungarriaren ehunekoak jarraian aipatzen direnak edo txikiagoak badira:
 - (i) **4. Oinarriko 4.1.1 eta 4.1.2 a) eta c) ataletan**, zehazten diren jardueretarako kostu lagungarriaren %30. Salbuespena enpresa txikiak eta ertainak izango dira, horien kasuan %50 eta %40 izango baita, hurrenez hurren (651/2014 Erregelamenduaren 38. artikulua).
 - (ii) **4. Oinarriko 4.1.2 b) atalean** zehazten diren inbertsio proiektuetarako kostu lagungarriaren %45. Salbuespena enpresa txikiak eta ertainak izango dira, horien kasuan %65 eta %55 izango baita, hurrenez hurren (651/2014 Erregelamenduaren 40. artikulua).
 - (iii) **4. Oinarriko 4.2.1, 4.2.2, 4.2.3 eta 4.2.4 ataletan** aurreikusten diren diru laguntzei dagokienez, hauxe izango da:
 - a. Kostu lagungarriaren %45; salbuespena enpresa txikiak eta ertainak izango dira, horien kasuan %65 eta %55 izango baita, hurrenez hurren, honako ezaugarri hauek betetzen badituzte: (i) energia iturri berriztagarrietatik datorren energiaren ekoizpenean egindako inbertsio-kostuak inbertsio bereizi gisa identifikatu ahal direnean guztizko inbertsio-kostuetan, adibidez, erraz identifikatu daitezkeen osagai erantsiren bat egungo instalazio batean jartzeko, edo (ii) energia

iturri berriztagarrietatik datorren energiaren ekoizpenean egindako inbertsio-kostuak antzeko inbertsio baten erreferentzia hartuta identifikatu ahal direnean, ingurumena gutxiago errespetatzen badu ere, modu sinesgarrian diru laguntzarik gabe egin zitekeena, bi inbertsio horien arteko kostuen aldeak zehaztuko du energia iturri berriztagarrietatik datorren energiari lotutako kostua (651/2014 Erregelamenduaren 41. artikulua).

b. Kostu lagungarriaren %30; salbuespena enpresa txikiak eta ertainak izango dira, horien kasuan %50 eta %40 izango baita, hurrenez hurren; Tamaina txikiko zenbait instalazioen kasuan, ingurumena gutxiago errespetatzen duen inbertsioa zehazteko modurik ez badago, tamaina mugatua duten instalazio ezagatik, ingurumen babes maila handiagoa lortzeko egindako inbertsioaren guztizko kostuak izango dira kostu lagungarriak (651/2014 Erregelamenduaren 41. artikulua).

(iv) **4. Oinarriko 4.2.2 eta 4.2.3 ataletan** aurreikusten diren diru laguntzei dagokionez, laguntza programa honen arabera, energia aldetik eraginkorrak diren berokuntza eta hozteko hiri-sistemak (District Heating) egitea aurreikusten diren jardueren kasuan, kostu lagungarriaren %45; salbuespena enpresa txikiak eta ertainak izango dira, horien kasuan %65 eta %55 izango baita, hurrenez hurren (651/2014 Erregelamenduaren 46. artikulua).

Laguntza programa honen arabera, beste administrazio batzuek edo erakunde pribatuek emandako diru laguntzak gauzatzen badira EEE Energiaren Euskal Erakundeak emandako diru laguntzaren ebazpenaren ondoren, diru laguntzaren zenbatekoaren gutxitzea ebazpen baten bidez zehaztuko da, diru laguntza ordaindu aurretik emango dena.

6.3 Diruz lagunduko diren jardueren kontratazioa edo azpikontratazioa hirugarrenekin

a) LGSen 29. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, onuradun batek azpikontratatzeko duela ulertuko da honako egoera hau gertatuz gero: diru laguntzaren xedea den jardueraren zati baten edo jarduera osoaren gauzapena hirugarren batekin hitzartzen badu. Diruz lagunduko den jarduera aurrera eramateko onuradunak berak egingo dituen gastuen kontratazioa kontzeptu horretatik kanpo geratuko da.

Nolanahi ere, hirugarrenen kontratazioa edo azpikontratazioa diruz lagunduko den jardueraren zenbatekoaren %100 izan daiteke; diruz lagunduko diren jardueren kontratazio edo azpikontratazioaren aplikazioari dagokionez, goraxeago aipatutako 29. artikuluan xedatutakoa beteko da.

b) Diru Laguntzei buruzko Lege Orokorraren 31.3 artikuluan xedatutakoa betetz, urriaren 30eko Sektore Publikoaren Kontratuen 30/2007 Legean (**gaur egun TRSPKL** edo TRLCSP) ezarritako zenbatekoak gaintzen badituzte gastu lagungarriaren zenbatekoek, kontratu txikiari dagokionez, onuradunak gutxienez hiru eskaintza eskatu beharko zaizkie hornitzaile ezberdinei, obrarako konpromisoaren kontratazioa gauzatu, zerbitzua egin edo ondasuna eman aurretik, salbu eta, haren ezaugarri bereziengatik, merkatuan nahiko erakunderik ez baldin bada gauzatu, zerbitzu egin edo hornitzeko, edo salbu eta gastua egiten baldin bada diru laguntza eman baino lehen (salbuespena, azken kasu honetan, 651/2014 Erregelamenduaren mende dauden enpresei begira).

Aurkeztuko diren eskaintzen arteko aukeraketa, justifikazioan aurkeztu beharko direnak, edo hala badagokio, diru laguntza eskarian, eraginkortasun eta ekonomia irizpideak kontuan hartuta egingo da, eta ekonomikoki proposamen abantailatsuen aukeratu ezean, berariaz justifikatu beharko da.

7. DIRU LAGUNTZA ESKATZEKO HELBIDEA

Eskabideak Oinarri hauetako 3. atalean aipatutako epean aurkeztu beharko dira EEEren bulegoan, edo posta zertifikatuaz, honako helbide honetan:

EEE - Energiaren Euskal Erakundea
5020 Posta Kutxa
Bizkaia plaza eraikina
Urkixo zumarkalea, 36. 1. solairua
48011 Bilbo

Honako erreferentzia adierazi: **ESES 2017**

8. DIRU LAGUNTZA ESKAERAREN KUDEAKETA ETA PROZEDURA

Diru laguntza pertsona interesatuak eska dezake zuzenean, edo haren legezko ordezkariak; hala ere, azken hau ezin izango da diru laguntzaren onuraduna izan inoiz.

Eskatzaileak jarduera bera egingo badu zenbait tokitan, eskabide espezifiko bat egin beharko du kokaleku bakoitzeko.

Diru laguntzaren eskabidea eta berarekin batera bidali behar den dokumentazio tekniko-administratiboa nora bidali behar den **7. atal edo klausulan** azaltzen da. Horrekin batera, **3. atalean** adierazten den epearen barruan aurkeztuko da.

Zehazki, diru laguntzaren eskatzaileak aurkeztu beharreko dokumentazioa hauxe da:

- a. **I.1 eranskina. 2017ko diru laguntza eskabidea.** Eskatzailearen datuak, behar bezala adierazita.
- b. **I.2 eranskina. 2017ko diru laguntza eskabidea.** Dokumentazio administratiboa. Atal honen barruan, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:
 - Sinatzailearen NANaren kopia (legezko ordezkaria).
 - IFKaren kopia.
 - Ahalduzko eskrituraren kopia edo ordezkatzeko dokumentu justifikagarria.
 - Eskrituraren, estatutuen edo eratzeko ekitaldiaren kopia.
 - Kontu korrontearen IBAN-a egiaztatze banketxearen ziurtagiria, haren titularra onuraduna izan beharko da. Laguntzen Programa honek eskatzen dituen baldintza guztiak betez gero, kontu horretan sartu edo ordainduko da diru laguntza.
 - Foru Ogasunean dagozkion ordainketak eginak dituela egiaztatzen duen egiaztagir eguneratua.
 - Gizarte Segurantzari dagozkion ordainketak eginak dituela egiaztatzen duen egiaztagir eguneratua.
 - **Ondorio pizgarria** betetzearen inguruko **justifikazioaren dokumentua**, 651/2014 Erregelamenduaren 6.2 artikuluan eskatzen den bezala, (**enpresa handiak** bakarrik).
 - Administrazio kontratatzailearen ziurtagiria, kontratuaren behin betiko esleipena eskatzailearen aldeko izan dela egiaztatzen duena.
- c. **II. eranskina.** Aurkeztu duen proiektu bera egiteko, beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatu bati eskatutako edota emandako beste diru laguntzei buruzko deklarazioa eskaeraren egunean. Beste diru laguntza osagarriak jaso ez bada ere, dokumentu hau aurkeztu beharko da.

Beste erakunde batzuek emandako beste diru laguntzei buruzko ebazpen positiboa(k) eduki baldin bad(it)u, haien kopiak aurkeztu beharko dira.
- d. **III. eranskina.** Eskatzaileak arauak betetzen dituela egiaztatzen duen ardura-deklarazioa justifikazioaren egunean.
- e. **IV. eranskina.** Enpresatzaile hartzeko adierazpena, 651/2014 Erregelamenduaren ondorioetarako.
- f. **V. eranskina.** Dokumentazio teknikoa, eta bertan honako dokumentu hauek azaldu behar dira:
 - Memoria tekniko-ekonomikoa, diruz lagunduko den proiektu bakoitzeko, eta bertan, formalizatutako kontratuaren arabera, hauxe azaldu beharko da: proiektuaren deskribapena, gauzatzeko epea (hasiera eta amaiera egunak adieraziz), hasi-eskemak eta kalkuluen laburpena.
 - Biomasaren energia aprobetxamendurako eta geotrukaketa instalazioen kasuan, ezinbestekoa da memorian honako datu hau agertzea: diruz lagunduko den instalazioak ase edo bete behar duen energia eskariari lotutako atala; kalkulutatutako energia eskaria zehaztu beharko da bero premiei begira, eta hala badagokio, hotz premiei begira ere bai. Kasuan kasu, eskatzen diren gehieneko bero potentzia edota gehieneko hotz potentzia azaldu beharko dira.
 - Energia instalazio mistoen kasu partikularretarako, esate baterako, biomasa-galdara eta gas natural-galdararekin konbinatzen denean, edo biomasa-galdara bero ponpa geotermikoarekin konbinatzen denean, bero edota hotz eskariaren gehieneko potentziak honako honen arabera zehaztuko dira: kasuan kasuko instalazio mistoa osatzen duen ekipo bakoitzari kalkulatu zaien ekarpen espezifikoak. Laguntzen programa honen arabera eta kasu hauetarako, diru

laguntza kalkulatzeko potentzia biomasa-galdarei dagokiena izango da, eta aurreko paragrafoan adierazitako moduan.

- Energia iturri berriztagarriez (biomasa, geotermia eta fotovoltaikoa) baliatzen diren instalazioen kasuan, fabrikatzailearen zehaztapen teknikoek kopiatu beharko da.
- Proiektuaren energia-kalifikazioa eta kanpo argiteria publiko proiektuen kasuan, energia-kalifikazioaren justifikazioa.
- Kanpo argiteria proiektuei dagokienez, 1890/2008 Errege Dekretuak dioena betetzen dela adierazpena.
- Aurreikusitako energia aurrezpenaren justifikazioa.
- Instalazioak jartzeko eskatzen den diru laguntza eskabidea, gaur egun indarrean dagoen CTEn xedatutakoaren arabera beharrezkoak direnak, dokumentazio justifikagarria aurkeztu beharko da, aipatutako kodea ez zaiola aplikagarria egiaztatzeko.
- **Inbertsio “konbentzional” edo “estandar” motaren kostua**, 651/2014 Erregelamenduaren 38., 40. eta 46. artikuluetan xedatutakoa betez (eraginkortasun handiko alderdiak kontuan hartzen ez dituen oinarritzko inbertsio baten eskaintza edo antzekoa).
- Diru laguntzaren eskatzailearen eta Administrazioaren artean sinatutako kontratuaren kopia, energia zerbitzuak emateari begira. Bertan, besteak beste, hauxe azalduko da: inbertsioak eta itzulkina edo erretornua Administrazioari, prezioen murrizketa, eskatzaileak EEEren aldetik jasoko duen diru laguntzaren ondorioz. Horretaz gain, Administrazio kontratatzailearekiko betebeharrak, energia zerbitzu enpresen (ESE) nahitaezko inbertsioen eta borondatezko inbertsioen arteko bereiztea.
- Aipatutako kontratu horretan, ESEren eta Administrazioaren artean sinatua, zerbitzuaren prezioen murrizketaren zenbatekoa azaldu ezean, eskatzaileak EEEren aldetik jasoko duen diru laguntzaren ondorioz, alde bietan izenpetuko duten deklarazio bat aurkeztu beharko da, energia zerbitzuaren kostuaren murrizketa adieraziz, eta haren gutxieneko kantitatea izango da EEEk ESEri emango dion diru laguntza ekonomikoa.
- Aurrekontu zehaztua, enpresa esleipendunaren aldetik. Dokumentu hau zehatza izango da sail ekonomiko ezberdinei dagokienez. Ez da inolako aurrekonturik onartuko, baldin eta sail ekonomiko gehituak baditu, energia instalazioaren sail ekonomiko garrantzitsuenak bereiztea galaraztea ekar dezaketenak.

Aurrekoaz gain, proiektua gauzatzen arituko diren langileen ezaugarriak zehaztasunez adierazi beharko da eranskinean; batez ere, honako hauek: langile bakoitzaren kategoria, jardunaldia eta orduko kostua.

EEE Energiaren Euskal Erakundeak eskabidea aztertzeko, ebazpena prestatzeko eta diru laguntza emateko beharrezkotzat jotzen dituen informazioa eta agiri osagarriak eskatu ahal izango dizkio eskatzaileari.

9. EBAZPENA, KOMUNIKAZIOA ETA PUBLIZITATEA

Diru laguntza emateko prozedura lehia edo konkurrentzia jarraitua izango da, eta, beraz, eskabideak aurkeztu diren hurrenkeraren edo ordenaren arabera aztertu eta bideratuko dira espedienteak, eta modu egokian formulatuak eta beteak egongo diren heinean eta hurrenkeran bideratuko dira.

Eskabidea osatugabe edo akatsekin egongo balitz, hamar (10) egun balioduneko epea emango litzaioke eskatzaileari zuzentzeko, zuzentzeko bidaliko zaion idazkiaren bidez jakinarazia, diru laguntzaren eskatzaileak horren berri emateko jakinarazpena jasotzen duen egunetik kontatzen hasita (39/2015 Legearen 68. artikulua). Ondorio horietarako, zuzenketa egingo den eguna joko da eskabidearen aurkezpen eguntzat.

Goraxeago aipatutako epean dokumentazioa aurkeztuz gero, eskabideari dagokion espedientea bideratzen edo tramitatzen jarraituko da. Epe horretan dokumentazioa aurkeztu ezean, eskabidea baztertu egingo da, aldeztu aurretik berariazko ebazpena emanez. Aurrekoa gorabehera, eskatzaileak beste eskabide bat

aurkezteko eskubidea izango du. Nolanahi ere, 3. oinarrian zehazten den diru laguntza programaren iraunaldia kontuan hartu beharko da.

EEE Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusiak, sei (6) hilabeteko gehieneko epean, diru laguntza eskaera aurkeztu den egunetik kontaktatu hasita, erabaki eta ebazpena emango du urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera (aurrerantzean **39/2015 Legea**), Herri Administrazioen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkideaz diharduena. Ebazpen horretan diru laguntza jasotzen duen proiektuaren irismena, diru laguntzaren zenbatekoa eta intereseko beste alderdi batzuk azalduko dira. Ebazpena eskaerari ezezkoa emateko bada, ordea, zioak edo argudioak azalduko dira.

Epe hori igaro ondoren eta berariazko ebazpenik jakinarazi ez bada, interesdunek onartutzat jo ahal izango dute beren diru laguntza eskaera, 39/2015 Legearen 24.1 artikuluan xedatzen denarekin bat etorritik.

Ebazpen horren kontra, prozedura administratiboari amaiera ematen diona, interesdunek hautazko birjartze errekurtsioa jar dezakete EEE Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusiaren aurrean hilabeteko epearen barruan, ebazpena jakinarazten den egunaren biharamunetik kontaktatu hasita, edo bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsioa Bilbon dagokion epaitegian bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazten den egunaren biharamunetik kontaktatu hasita. Hori guztia, 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluek diotena betez eta uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikuluekin bat etorritik; hain zuzen ere, Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duena (aurrerantzean **29/1998 Legea**).

Diru laguntza emateko orduan kontuan hartutako baldintzak aldatuz gero, betiere onuraduna izateko diru laguntzen araudiek ezartzen dituzten gutxieneko betekizunak babestuz, diru laguntza emateko ebazpena aldatzea ekar dezake (LGEen 19.4 artikulua eta 1/1997 Dekretu Legegilearen 49.2 artikulua).

Azkenik, 19/2013 Legeak dioenarekin bat etorritik, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa (aurrerantzean **19/2013 Legea**), Laguntza Programa hau amaitu eta gero, EEE Energiaren Euskal Erakundeak bere Gardentasun Atarian eta EHAAn argitaratuko ditu emango diren diru laguntzak; bertan, laguntzen zenbatekoa, helburua edo xedea eta onuradunak azalduko dira.

10. DIRU LAGUNTZAK ORDAINTZEA

EAEko Administrazio Orokorrak eta bere erakunde autonomiadunek zein EEEK emandako diru laguntzak itzultzeko dauzkaten elkarteek, Laguntzen Programa honen izaera berekoak baldin badira, ezin izango dute laguntzen programa honek ematen duen diru laguntzarik jaso.

Horrelako kasuetan, aztertu egingo da itzuli beharreko diru laguntza zer egoeratan dagoen, borondatezko aldian edo bide betearazlean.

Aurkeztuko den proiektua edo azterlana bukatu ondoren, diru laguntza eskabidean azaldutakoarekin bat etorritik, EEEK emango duen diru laguntzaren ordainketa, onuradunak horretarako adierazitako kontu korrontean egingo da. Hori egin aurretik, justifikatu beharreko dokumentazio guztia aurkeztu beharko da, diruz lagunduko jarduerak eta egindako gastuak egiaztatzeko.

Jarduerak justifikatzeko, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

- **VI. eranskina.** Proiektua Amaitu, Abian Jartzeko eta Ordainketa Egiteko Komunikazioa.
- **II. eranskina.** Aurkeztu duen proiektu bera egiteko, beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatu bati eskatutako edota emandako beste diru laguntzei buruzko deklarazioa **justifikazioaren egunean**. Dokumentu hori bete edo aurkeztu beharrekoa da, eskatutako edota emandako beste diru laguntzarik ez badago ere..

Beste erakunde batzuek emandako beste diru laguntzei buruzko ebazpen positiboa(k) eduki baldin bad(it)u, haien kopiak aurkeztu beharko dira.

- **VII, eranskina.** Eskatzaileak arauak betetzen dituela egiaztatzen duen ardura-deklarazioa justifikazioaren egunean.
- Foru Ogasunean dagozkion ordainketak eginak dituela egiaztatzen duen egiaztagir eguneratua.
- Gizarte Segurantzian dagozkion ordainketak eginak dituela egiaztatzen duen egiaztagir eguneratua.
- Administrazio kontratatzaileak emandako ziurtagiria, onuradunak haren aurrean hartutako kontratu-betebehar guztiak eguneratuak edo beteak dituela egiaztatzen duena.
- Egindako inbertsioaren faktura zehatza/k (jatorrizko kopiak), honako data hauen artean: Laguntza Programa honen diru laguntza eskabidea aurkezten den egunaren biharamunetik, haren Oinarriak EHAA n argitaratu ondoren, 2017ko abenduaren 31ra. Era berean, ordainketa justifikatzeko agiriak ere aurkeztu beharko dira.

Fakturak onuradunak berak jaulki behar ditu, Oinarri hauetako 2.1 atalean zehazten den bezala.

Eskaeran adierazitako inbertsio osoa justifikatu ezean, azalpen justifikagarri laburra aurkeztu beharra dago.

- Memoria teknikoa, egindako jardueren eta aurreikusitako energia aurrezkien betetze mailaren justifikagarria. Horretaz gainera, egindako proba eta ikuskapen teknikoen ziurtagiriak ere aurkeztuko dira.
- Memoria ekonomikoa, egindako jardueren kostuen justifikagarria, eta jarduerari lotutako gastuen eta inbertsioen erlazio sailkatua izango duena, honako hauek deskribatuko dituena: gastua, hartzekodunaren identifikazioa, guztizko zenbatekoa eta proiektuari edo jarduerari dagokiona, ordainketa eguna eta gerta litezkeen desbideratzen erreferentzia eta arrazoiak, onartutako aurrekontuaren aldean.
- Erregistratutako eraikinaren energia eraginkortasunaren ziurtagiria eta erregistroa, eraikinetan hobekuntzez diharduen 2013ko apirilaren 5eko 235/2013 Errege Dekretuaren arabera (aurrerantzean 235/2013 E.D.).
- Instalazioa onartu, hartu edo eman dela egiaztatzen duen ziurtagiria, kontratuan hitzartutakoaren arabera, eta eraikinaren titularra den administrazioeko teknikari eskumendunak sinatua.
- ESEk emandako ziurtagiria, proposatzen den energia sistema berriari lotuta eta parte hartze zuzena izango duen ESEko langile bakoitzaren kategoria, dedikazio orduak eta ordukako kostua azalduko dituena.
- Elektrizitatea ekoizteko energia berriztagarrien instalazioa sarera konektatuta egonez gero, Behe Tentsioko Instalazio Elektrikoaren Ziurtagiriaren (CIBT.1) kopia, edo abian jarri izanaren aktaren kopia.
- Instalazioa bere osotasunaren eta osagai nagusien kolorezko argazkiak.
- Instalazioa mantentzeko kontratu/konpromisoaren kopia.

Goaxeago aipatutako dokumentazio hori aurkezteko azken eguna 2018ko urtarrilaren 15ean izango da. Nolanahi ere, dokumentazio justifikagarri guztia aurkezteko epea ez da inola ere luzatuko EEE Energiaren Euskal Erakundearen aldetik.

Aipatutako dokumentazio hori guztia EEE Energiaren Euskal Erakunderen bulegoetan jaso ondoren, aztertzeari ekingo zaio, eta egokia edo behar bezala izanez gero, diru laguntza ordaintzeko izapideari hasiera emango zaio, dagokion diru sarrera eginez.

Horrelako kasuren bar gertatuz gero:

- Eskatutako dokumentazio guztia ez da epearen barruan aurkezten.

- Energia instalazioa egin dela eta dagokion fakturazioa ez direla egiaztatzen, Laguntza Programa honetara diru laguntza eskabidea aurkezten den egunaren biharamunetik, Laguntza Programa honen Oinarriak EHAAn argitaratu eta gero, 2017ko abenduaren 31ra.
- Aurkeztutako dokumentazio justifikagarri guztia aztertu ondoren, hasieran amandako diru laguntzaren zenbatekoa txikiagoa izan behar dela edo ez zegokiola diru laguntza ematea.

Goiko hiru kasuetakoren bat gertatuz gero, EEEK diru laguntza aldeaz edo osorik, kasuan kasu, errebokatze espedienteari ekingo dio.

Aipatutako dokumentazio justifikagarri hori EEEren bulegoetan aurkeztuko da, edo posta zertifikatuaz bidaliko da honako helbide honetara:

EEE – Energiaren Euskal Erakundea

5020 Posta Kutxa
Bizkaia plaza eraikina
Urkixo zumarkalea, 36. 1. solairua
48011 Bilbo

Honako erreferentzia hau idatzi behar da: **dagokion espediente zenbakia eta ESES 2017**

11. IKUSKAPENAK

Diru laguntza emateko ebazpena eman ondoren, EEE Energiaren Euskal Erakundeak ikuskapen teknikoa “in situ” egin ahal izango du, eta bertan diruz lagundutako jardueraren zenbait argazki adierazgarri egingo dira, adierazitako inbertsioa burutu dela egiaztatze asmoz. Ikuskapena egingo zaien onuradunei aldeaz aurretik idazki bat bidaliko zaie haren berri emateko.

Ikuskapena egiteko jakinarazpena jasoko dutenek egiteko betebeharra izango dute, eta, beraz, EEEri egiten utzi beharko diote.

Jakinarazpena bidali ondorengo bi asteren barruan, EEE Energiaren Euskal Erakundeak onuradunari ikuskapen teknikoa edo ekonomikoa “in situ” egingo duela jakinarazi ondoren, adierazitako inbertsioa burutu dela egiaztatze asmoz, ezin izango balitz ikuskapena egin, EEEekin zerikusia ez duten arazoak tarteko, idatziz jakinaraziko zaio onuradunari hamabost (15) egun balioduneko epea izango duela beste hitzordu bat egiteko, ikuskapena egin ahal izateko. Hori egin ezean, EEEK diru laguntza aldeaz edo erabat errebokatze asmoz ebazpena emateko espedientea abiaraziko du.

Ikuskapenean hartutako informazioa eskabidean aurkeztu den dokumentazioarekin kontrastatu ondoren, eta hasieran amandako diru laguntza kantitatea txikiagoa izan behar dela, edo ez zegokiola diru laguntzarik jasotzea ondorioztatuko balitz, EEEK diru laguntza aldeaz edo erabat errebokatze espedientea egingo du eta, hala badagokio, zati bat edo kantitate osoa itzultzeko eskatuko luke, legezko beste bide batzuk hartzeko eta zigorrak aplikatzeko eskubideari uko egin gabe.

12. ONURADUNEN BETEBEHARRAK

Programa honen bitartez arautzen diren diru laguntzen onuradunek betebeharrak hauek izango dituzte:

- a. LGSen 14. eta 46. artikuluetan eta 1/1997 Dekretu Legegilearen 50.2. artikuluan xedatutakoak.
- b. Emandako diru laguntza onartzea. Laguntza programa honen arabera, diru laguntza eman zaiola jakinarazten dion agiria jaso eta hamabost (15) eguneko epean berariaz eta idatziz uko egiten ez badio, onartu egin duela ulertuko da, programa honetan zein ebazpenean ezartzen diren baldintza ekonomikoen eta gainerakoen arabera.
- c. Diru laguntza zertarako eman zaion, horretarako erabiltzea.

- d. Kontrol Ekonomiko Bulegoari eta Kontu Publikoen Euskal Auzitegiari ematea eskatu ahal dioten informazio guztia laguntza programa honek ematen dituen diru laguntzez, diru laguntza hauek kontrolatzeko dituzten zereginei jarraiki.
- e. Helburu bera duen proiektua egiteari begira, beste administrazio, erakunde publiko edo pribatu bati eskatutako edota horiek emandako diru laguntzaren berri ematea EEE Energiaren Euskal Erakundeari.
- f. Garatuko den egitasmoei lotutako instalazioek indarrean dagoen legeria bete beharko dute, eta haien osagaiek dagokion erakunde eskumendunaren homologazioa eduki beharko dute. Beraz, onuradunak onartzen du egitasmoak bete egingo duela aplikagarria izan dakioken legeriaren alderdi guztietatik: teknika, hirigintza eta gainerako ezaugarriak kontuan hartuta.
- g. Instalazioa jabetzan izatea eta funtzionamendu egokian edukitzea bost (5) urteko gutxieneko epean, EEEk diru laguntza ematen edo ordaintzen duen egunetik kontatzen hasita.

Kasu bereziren batean, aipatutako bost (5) urteko epea igaro aurretik, onuradunak diruz lagundutako instalazioak edota ekipoak hirugarren bati besterentzea erabakiz gero, azken honek onuraduna izateko dokumentu honetan eskatzen diren baldintzak bete behar ditu, saltzeko kontratu-agirian espresuki adierazi beharko du inbertsio hori EEE Energiaren Euskal Erakundearen 2017ko Euskadiko Eraikin Publikoetan Energia Eraginkortasuna eta Energia Berriztagarrien Erabilera Sustatzeko Planaren Aldeko Laguntza Programa, Energia Zerbitzu Enpresekin (ESE) Sinatutako Kontratuen Bidez, laguntza jaso duela. Era berean, jabe berriak edo erosleak konpromisoa hartzen du diru laguntza eman zen helbururako erabiltzeko eta instalazioak funtzionamendu egokian edukitzeko EAEn, gutxienez, aipatutako epea bete arte. Horrela ez balitz, EEEk diru laguntza aldeaz edo osorik baliogabetzeko espedientea irekitzeari ekingo lioke.

Nolanahi ere, besterentzea erabakiz gero, EEEri jakinarazi beharko lioke, kontratu-agiria sinatzen den egunetik hilabeteko epean gehienez ere.

- h. Diru laguntzaren helburua diren instalazioak eta/edo ekipoak besterentzen badira hirugarrenaren alde, diru laguntzaren onuradunak, hartzailereangandik diru laguntza eman zen helburua betetzeari begirako konpromisoa bereganatzeaz gainera, baita ezarritako epean zehar funtzionamendu egoera egokian edukitzeko ere, erosleak agindutakoa behar bezala betetzen ez badu, emandako diru laguntza itzultzeko betebeharra duela konpromisoa hartzen du.
- i. EEEk hala eskatzen baldin dio, onuradunak konpromisoa hartzen du lortutako emaitzen bilakaeraren berri emateko.
- j. Diru laguntza ematearekin zerikusia duen edozein aldaketa objektiboa zein subjektiboaren berri ematea EEE Energiaren Euskal Erakundeari.
- k. Eman daitekeen diru laguntza ondo erabiltzen dela egiaztatzeko, EEEk eska diezaiokeen informazio guztia emateko betebeharra izango du onuradunak.
- l. Diruz lagunduko den proiektuaren inguruan egin daitezkeen komunikazio edo sustapen ekintzetan onuradunaren aldetik, paperean, euskarri elektronikoan edo ikus-entzunezkoan, proiektuak EEEren 2017ko Euskadiko Eraikin Publikoetan Energia Eraginkortasuna eta Energia Berriztagarrien Erabilera Sustatzeko Planaren Aldeko Laguntza Programa, Energia Zerbitzu Enpresekin (ESE) Sinatutako Kontratuen Bidez, laguntza jaso duela erreferentzia argia azaldu beharko da.

13. EZ BETETZEA ETA DIRUA ITZULTZEA

Jasotako diru laguntzak itzultzeari ekingo zaio eta dagozkion berandutze-interesak eskatuko zaizkio, diru laguntza ordaintzen zaion unetik edo egunetik itzulketa egiteko erabakia hartzen den data edo egunera arte, LGSen 37. artikuluan xedatutakoa betez. Itzulketa aldeaz edo partzialki egin beharko den kasuetan, aipatutako LGSen 37.2 artikuluan xedatutako graduazio irizpideak kontuan hartuko dira.

Deialdi edo programa honetan ezarritako eskakizunak, aplikatu daitezkeen gainontzeko arauak edo diru laguntza emateko ebazpenean jarritako baldintzak bete ezik, ez betetze espedientea ireki, eta diru

laguntzak ezeztatu eta itzuli egin beharko litzaioke EEERI, beranduntze-interesekin batera. Hori guztia, honako legeriak xedatutakoa betez: 1/1997 Dekretu Legegilean xedatutakoari jarraiki eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuaren II. idazpurua, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuen kontura emandako diru laguntzen bermeei eta itzulketei buruzko araudi orokorra arautzen duena, eta kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileek bete behar dituzten eskakizunak, arautegia eta betebeharrak finkatzen dituena. Nolanahi ere, horrek ez du salbuesten bestelako zehapen eta lege-egintzetatik.

Errebokatzeko espedienteak hasarazteko eta ebazteko eskumena eta, hala dagokionean, emandako diru laguntza alde edo osorik itzularazteko ebazpenena, Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusiak du.

14. INFORMAZIO KLAUSULA ESKATZAILEEI

EEE Energiaren Euskal Erakundeak, Bizkaia plaza eraikinean, Urkixo zumarkalea, 36. 1. solairua, 48011 Bilbon, helbideratua dagoenak, hauxe jakinarazten dizu: zuk emandako datu pertsonalak, edo geroago eratuko direnak, EEE Energiaren Euskal Erakundearen ardurapean izango diren fitxategietan sartuko direla. Datu horiek zure eskabidea aztertu eta kudeatzeko erabiliko dira, eta hala badagokio, eskabide horretan eskatzen den diru laguntza ematekotan, horren ondorioz sor litezkeen harremanak bideratu eta gauzatzeko; betiere, aplikagarria izan daitezkeen araudia betez.

Nolanahi ere, onuradunak datu horiek ikusteko, aldatzeko, ezabatzeko eta inori ematen ez uzteko eskubideak erabil ditzake, datu pertsonalak babesteko legeriak xedatutakoari jarraiki. Horretarako, goraxeago aipatzen den EEERen helbidera idazki bat bidali behar du, bertan nor den behar bezala egiaztatuz.

Aurrekoaz gain, onuradunak honako konpromiso hau hartzen du: eskabidearekin zerikusia duen edozein pertsona fisiko/juridikoren datu pertsonalak EEE Energiaren Euskal Erakundeari eman aurretik, pertsona fisiko/juridiko horri aurreko paragrafoetan azaltzen diren testuen edukiaren eta gainerako eskakizunen berri emateko. Horretaz gain, EEERI datu pertsonalak era zuzenean emateko aplikagarriak izan litezkeen araudi guztiak betetzeko konpromisoa hartzen du, EEEK bestelako jarduera gehigarri egin beharrik gabe. Era berean, EEERI emandako datuetan gerta litezkeen aldaketa edo ezabaketan berri emateko konpromisoa hartzen du.

15. AZKEN XEDAPENAK

1. EEERen erabakiak izaera administratiboa du, eta administrazioarekiko auzitegiei dagokie EEEK kudeatzen dituen diru laguntzekiko jurisdikzio-eskumena.
2. Laguntza Programa honek emandako diru laguntzari esker egiten diren instalazioen irudien erabilera egiteko eskubidea du EEEK.
3. Onuradunak aurkeztuko duen dokumentazioan edo informazioan egon daitezkeen akatsen eta/edo errakuntzen erantzukizuna harena baino ez da izango, baldin eta EEEK eman beharko duen diru laguntzaren kantitateari eragiten badio zuzenean, ez izapidetza edo tramitazio egokiari dagokionez. Horrexegatik, hain zuzen ere, diru laguntza ematen den unean kontuan hartzen den gastuaren eta gerta litekeen gehikuntzaren edo gastu errearen arteko aldea ez da inola ere berrikusiko.
4. Oinarri hauetan aurreikusten edo jasotzen ez den guztietan honako hau beteko da:
 - 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Diru Laguntzei buruzko Lege Orokorra.
 - 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, Diru Laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrari buruzko Arautegia onartzen duena.
 - 1/1997 Legegintza Dekretua, azaroaren 11koa, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duena.
 - Batzordearen 2014ko ekainaren 26ko UE 651/2014 Erregelamendua, zenbait diru laguntza mota barne-merkatuarekin bateragarriak jotzen dituena, Itunaren (DOUE 2014 L 187) 107. eta 108. artikuluen aplikazioaren ondorioz.

- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideaz diharduena.
- 29/1998 Legea, uztailaren 13koa, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duena.

**EUSKADIKO ERAIKIN PUBLIKOETAN ETA INSTALAZIOETAN ENERGIA
ERAGINKORTASUNA ETA ENERGIA BERRIZTAGARRIEN ERABILERA SUSTATZEKO
PLANAREN ALDEKO LAGUNTZA PROGRAMA, ENERGIA ZERBITZU ENPRESEKIN (ESE)
SINATUTAKO KONTRATUEN BIDEZ**

2017. URTEA

ERANSKINAK

- I.1 eranskina Diru laguntza eskabidea 2017. Eskatzailearen datuak
- I.2 eranskina Diru laguntza eskabidea 2017. Dokumentazio teknikoa-administratiboa
- II. eranskina Beste diru laguntza batzuei buruzko adierazpena
- III. eranskina Eskatzaileak arauak betetzen dituela egiaztatzen duen ardura-deklarazioa justifikazioaren egunean
- IV. eranskina Enpresatzat hartzeko adierazpena, 651/2014 Erregelamendua
- V. eranskina Energia berriztagarriei buruzko dokumentazio teknikoa
- VI. eranskina Proiektua amaitu eta abian jartzeko komunikazioa
- VII eranskina Eskatzaileak araudia betetzearen inguruko deklarazioa justifikazioaren egunean